



ESKOLAKO OHARRAK

OPORRAK

Eskolako azken eguna ekainaren 18a izango da. Datorren irailaren 8an hasiko dugu 2021/2022 ikasturte berria. Ikasturte hasieran, bukaeran bezala, irailaren 8tik irailak 17a bitarte, jardun jarraia izango dugu eta beraz, 14:30etan bukatuko dute jangelan bazkaltzen duten ikasleek, eta etxean bazkaltzen dutenek berriz, 12:30etan. Irailaren 20tik aurrera, astelehena, goizez eta arratsaldez arituko gara. Ongi pasa oporretan!



ARROPA

Ikasturte bukatzeaz dagoen honetan, eskolako atezainaren sarreran, arropa asko dugu pilatuta. Zuen seme-alabek galdu edo ahaztu duten arropa jasotzera hurbil zaitezten gonbidatzen zaituztegu.



COVID19

Gauden pandemia egoeran, ikasleen PCR frogen emaitza positiboa denean eskolako zuzendaritzari edo ikasleen tutoreei jakinaraztea eskatzen dizuegu, mesedez. Honela guk gure barne protokoloa ahalik eta azkarren martxan jar dezagun.

EUSKARAREN ASTEA

Gogoratzen duzuen bezala, aste honetan euskararen astea ospatu dugu eta hainbat ekintza ezberdin burutu ditugu, horien artean bertso musikatuak, gure eskolako irakasle den Pabloren irudia erabiliz "irudi bat mila hitz" proiektua, ipuin kontalariak, jolasgaria sorpresa eta irratsaio berezia. Azken hau entzun nahiko bazenute, astelehenean ekainaren 14ean, entzungai izango duzue arratsaldeko 17:00etan Oiartzun Irratian, 106.5FM.



FEMINISMOA

Melanie Klein (Viena, 1882ko martxoaren 30a - Londres, 1960ko irailaren 22a) austriar-britainiar psikoanalista izan zen eta funtzionamendu psikikoaren inguruko teoria bat sortu zuen. Hurren garapenari buruzko ekarpen garrantzitsuak egin zituen teoria psikoanalitikotik eta psikoanalisiaren eskola ingelesa sortu zuen.



Informazio gehiago: www.elizalde.eus, www.gurasoelkartea.elizalde.eus eta www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es